

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

#### **Vitoria-Gasteizko ikastetxeetan eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko dirulaguntza-deialdiaren ebazpena**

Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza-kontseiluak 2019ko urriaren 25ean onetsi zuen Vitoria-Gasteizko ikastetxeetan eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko dirulaguntza-deialdia.

2019ko azaroaren 8an argitaratu ziren ALHAOren — 129. Zk. — Vitoria-Gasteizko ikastetxeetan eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko dirulaguntza-deialdiaren oinarriak eta laburpena, zein Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza-kontseiluak onetsi baitzuen 2019ko urriaren 25ean.

Dirulaguntza-eskabideak aurkezteko epea (2019ko irailaren 22a) amaituta eskabideak berrikusi zirelarik, dirulaguntza eskuratzeko eskatutako dokumentazioa alderatu eta aztertu zen.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko ebaluazio-organoak ebazpen-proposamen hau egin du, oinarrietan adierazitako hautaketa-irizpideei jarraiki:

Ikusirik Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren estatutuak — 20016ko apirilaren 5eko ALHAO, 40. zk —, zentroko lehendakariak hauxe

Ebatzi du

Vitoria-Gasteizko udalerriko ikastetxeetan eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko dirulaguntzetarako deialdiari dagozkion zenbatekoak ordain daitezzen onestea, Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren aurrekontuko 2020/0110.1722.47102 partidaren kontura.

Ebazpen honek agortu egiten du administrazio-bidea, eta, beroren kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 28an

*Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko Lehendakaria*  
**ANA OREGI BASTARRIKA**

ZENTROA	DIRULAGUNTZARI DAGOZKION KOSTUAK (EUROTAN)	ORDAINDU BEHARREKO ZENBATEKOA (EHUNEKO 50) (EUROAK)
Zokozorri IGE-Odon Apraiz Ikastolako guraso-elkartea	419,02	209,51
San Martin HLHI	1041,62	520,81
Calasanz ikastetxea	1929,51	964,76
PAULO FREIRE HHII	435,55	217,78
Egibide Jesús Obrero	671,02	335,51
Gamarra Ostalaritza LHII	2.504,25	1.000,00
ErrekabarriHLHI	999,92	499,96
Abetxuko Ikastola	515,67	257,84
Ikasbidea Ikastola IEI	1.649,36	824,68
Lakuabizkarra HLHI	1.461,95	730,98
Sagrado Corazón - Carmelitas Ikastetxea	537,9	268,95
Amezti Txiki - Zabalzana HLHIko guraso-elkartea	381,16	190,58
<b>Guztira</b>	<b>12.546,93</b>	<b>6.021,36</b>